

EUSKARAREN CORPUS PLANGINTZA

**Koro Urkizu Miner
Vitoria-Gasteizen, 2002ko irailaren 16an**

AURKIBIDEA

Euskara hizkuntza

1. Hizkuntza-politika / hizkuntza-plangintza
2. Euskarari buruzko zenbait datu garrantzitsu.
3. Euskararen lege-estatusa

Euskararen corpusa

1. Euskara:
 - 1.1. Jatorria eta ahaidekoak
 - 1.2. Ezaugarri gramatikalak
 - 1.3. Euskalkiak
 - 1.4. Euskara Batua: historia laburra
2. Corpus-plangintza (eskema)
3. Corpus-plangintza
 - 3.1. Hizkuntzaren deskribapena eta ezaguera sakona
 - 3.1.1. Euskal Gramatika
 - 3.1.2. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)
 - 3.1.3. Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistemakoa (EEBS)
 - 3.1.4. Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)
 - 3.2. Hizkuntzaren estandarizazioa
 - 3.2.1. Bereziki hizkuntza idatzirako finkatu beharrekoa: ortografia
 - 3.2.2. Bereziki ahozko hizkuntzarako finkatu beharrekoak: ahoskera, azentua
 - 3.2.3. Hizkuntza idatzirako zein ahozkorako finkatu beharrekoak: gramatika, hiztegia, izen bereziak, hizkuntzaren erregistro desberdinak
 - 3.3. Hizkuntzaren modernizazioa
 - 3.3.1. Terminologia / Teknolektoak
 - 3.3.1.1. Egun terminologi lana egiten duten taldeak
 - 3.3.1.2. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) abian jarri duen terminologi lan-plangintza berria
 - 3.3.2. Hiztegi gintza / Erreferentzia-lanak
 - 3.3.3. Hizkuntzen teknologia
 - 3.3.3.1. Sarrera
 - 3.3.3.2. Euskara eta Informazioaren eta Komunikazioaren teknologia berriak
 - 3.3.3.3. Euskararen aurrerapenak Informazioaren eta Komunikazioaren teknologia berrien arloan
4. Corpus alorrean diharduten erakundeei edo taldeei buruzko informazio orokorra
5. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)
6. Ondorioak

BIBLIOGRAFIA

Euskara hizkuntza

1. Hizkuntza-politika / Hizkuntza-plangintza
2. Euskarari buruzko zenbait datu garrantzitsu
3. Euskararen lege-estatusa

1. Hizkuntza-politika / Hizkuntza-plangintza

Asko izan dira azken urteotan bi termino hauen inguruan eman izan diren definizioak eta horien artean ezarri diren erlazio-motak. Izan ere, gai honen inguruan dagoen bibliografia aztertuz gero, zaila gertatzen da bi termino horiek ondo bereizteko eta zehazteko definizio edo azalpen zehatza aurkitzea. Labur-labur honela definituko genituzke:

"Hizkuntza-politika: gobernu batek hizkuntza-egoera jakin baten aurrean esku-hartzea erabakitzen du, eta dauden edo sortzen diren arazoei irtenbidea emateko **hizkuntza-plangintza** bat ezartzen du; beraz, **hizkuntza-plangintza** da **hizkuntza-politikaren** aplikazioa".¹

Hizkuntza-plangintza terminoari dagokionez, Einar Haugen egileak erabili zuen lehen aldiz 1966. urtean eta eredu bat proposatu zuen. Lehenengo eredu horrek hizkuntzaren "forma"ri eta "funtzioa"ri buruzko gaiak hartzen zituen. Ondoren, Heinz Klosssek (1969) beste eredu bat proposatu zuen eta bereizketa hau egin zuen: "corpus-plangintza" eta "estatus-plangintza". 1983. urtean, hurrengo orrialdeko irudian ikus daitekeen bezala, Einar Haugenek 2. eredu bat proposatu zuen berak lehen ereduari egindako aldaketak jasoz eta Klossen tipologia erabiliz.

Arestian esan bezala, **hizkuntza-plangintza** terminoa azken berrogei urtetan landu izan da eta esanahi eta erabilera desberdinekin agertzen da hizkuntzaren soziologia eta soziolinguistika diziplinetako argitalpen orokorretan. Hala eta guztiz ere, bi dira termino horren barruan bereiztu izan ohi diren alderdiak:

1) Hizkuntzaren **corpus-plangintza**. Hizkuntza beraren barneko alderdia. Hizkuntza-aldaeren artean, eredu bat aukeratzen da, horren gainean hizkuntza estandarra eraikitzeko. Horren barruan bereiztu ohi dira:

A. "Estandarizazioa": ortografia-, fonetika-, fonologia-, gramatika- eta lexiko-mailan.

B. "Modernizazioa": teknolektoetan edo terminologia berezitueta.

2) Hizkuntzaren **estatus-plangintza**. Hizkuntzaren estatus juridikoa. Plangintza horren barruan, gobernu batek hizkuntza-egoera jakin batean esku-hartzea erabakitzen du hizkuntza hori gizartearen esparru guztietan erabilia izan dadin eta horretarako behar den lege-markoa ezartzen du.

¹ Araceli Díaz de Lezana: "Administrazioko terminologia eta inguruko arloekiko harremanak". Administrazioko hizkera eta terminologia Jardunaldiak. HAEE-IVAP, 1989

	FORM (policy planning) FORMA (hizkuntza-politika)	FUNCTION (language cultivation) FUNTZIOA ("hizkuntzaren kultura")
Society (status planning) <i>Gizartea (estatus-plangintza)</i>	1. Selection (decision procedures) a) identification of problem b) allocation of norms 1. Araua aukeratzea (erabakitze-prozesuak) a) identifikazioa b) zeri eragiten dion	3. Implementation (educational spread) a) correction procedures b) evaluation 3. Ezarpena (heziketa-prozesua) a) neurri zuzentzaileak b) ebaluazioa
Language (corpus planning) <i>Hizkuntza (corpus-plangintza)</i>	2. Codification (standardization procedures) a) graphization b) grammatication c) lexication 2. Arauaren kodifikazioa (estandarizazioa) a) ortografia b) sintaxia c) lexikoa	4. Elaboration (functional development) a) terminological modernization b) stylistic development 4. Hizkuntzaren modernizazioa a) terminologiaren modernizazioa b) hizkuntzaren estilo-funtzioaren garapena

Iturria: Einar Haugen; *The Implementation of Corpus Planning*, 1983

3. Euskarari buruzko zenbait datu garrantzitsu

Kokapen geografikoa

Euskara Euskal Herriko hizkuntza da. Espainiako eta Frantziako estatuen arteko lurraldean hitz egiten da. Hego Euskal Herrian Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan eta Araban hitz egiten da eta Ipar Euskal Herrian Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan. Lurralde horrek 20.864 km eta 3.000.000 biztanle inguru ditu.



Banaketa administratiboa

Euskal Herria bi estatutan eta hiru administrazioetan banatuta dago. Ipar Euskal Herria osatzen duten Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak, Biarnorekin batera, Pirinio Atlantikoak departamendua osatzen dute Akitaniako eskualdean. Ipar Euskal Herriko lurraldeek ez dute inolako autonomia politiko edo administratiborik departamenduaren barnean. Hego Euskal Herria osatzen duten Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, Espainiako bi autonomia-erkidegotan banatuta daude: Nafarroako Foru Erkidegoa (Nafarroa) eta Euskal Autonomia Erkidegoa (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa).

Egoera soziolinguistikoa

Euskararen egoera soziolinguistikoa dela eta, aztertu ditugun datuak Euskal Herriko Soziolinguistikazko II. Inkestarenak (1996) izan dira, horiek baitira argitaratu ziren azkenak. Hala ere, jakin badakigu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2002. urtean Euskal Herriko III. Inkesta Soziolinguistikoko egiteari ekin diola.

Aztertutako datuen artean (15 urtetik gorako biztanleak) *hizkuntza-gaitasunari* buruzkoak hartu ditugu kontuan. Hizkuntza-gaitasunaren azterketarako lau hiztun-talde bereizi dira, ukipenean dauden bi hizkuntzetan duten gaitasun erlatiboaren arabera:

Euskaldun elebakarrak: "ongi" hitz egiten dute euskaraz eta ez dute erdaraz "ongi" hitz egiten. Euskal Herriko biztanleen %0,5 dira, kopuru absolutuetan 12.400 lagun inguru.


Elebidunak: "ongi" edo "nahikoa ongi" moldatzen dira euskaraz zein erdaraz. Talde honek biztanleriaren %22 hartzen du, 534.100 lagun inguru.

Elebidun hartzaileak: euskaraz "zertxobait" hitz egiten dakite edo, hitz egiten ez badute ere, "ongi" edo "nahikoa ongi" ulertzen edo irakurtzen dute. Biztanleriaren %14,5 dira, 352.900 lagun inguru.

Erdaldun elebakarrak: gaztelaniaz edo frantsesez baino ez dakite hitz egiten. Biztanleriaren %63 dira, 1.528.700 lagun inguru.

Elebidunak, halaber, hiru azpitaldetan bereiz daitezke, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko duten erraztasunaren arabera:

- Euskal elebidunak: erdaraz baino errazago hitz egiten dute euskaraz (elebidunen %29,9 dira, 159.600 lagun inguru).
- Elebidun orekatuak: antzera hitz egiten dute euskaraz zein erdaraz (elebidunen %32,1 dira, 171.500 lagun inguru).
- Erdal elebidunak: euskaraz baino errazago egiten dute erdaraz (elebidunen %38 dira, 203.000 lagun inguru).



Erdaldun elebakarrak nagusi dira hiru lurraldeetan, baina desberdintasun nabariek: Nafarroan %80,6 dira, Iparraldean %64,2 eta Euskal Autonomia Erkidegoan %58,5.


Lau hiritarretik bat elebiduna da Iparraldean (%25,7) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (%24,7); Nafarroan, berriz, proportzio hori hamarretik batera (%9,4) jaisten da.

Elebidun hartzaileak %16,3 dira Euskal Autonomia Erkidegoan eta biztanleriaren ia hamarren bat Nafarroan (%9,8) eta Iparraldean (%9,3).

Euskaldun elebakarrak ez dira biztanleriaren %1era heltzen hiru lurraldeetan.

Emaitza hauek 1991ko soziolinguistikazko inkestan jasotakoekin erkatuz gero, ondorio nagusiak honakoak dira:

- Euskaldun elebakarrak erdira jaitsi dira, 23.500 lagunetik 12.400era hain zuzen ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoan, 15 urtetik gorako 35.000 elebidun gehiago daude (1991 urtean 401.500 lagun eta 1996an 438.400).
- Nafarroan 3.500 elebidun gehiago daude, 37.500 lagun ziren 1991n eta 41.000 lagun 1996an.
- Iparraldean, berriz, elebidunen kopuruak 6.000 lagun baino gehiago galdu ditu.



HIZKUNTZA-GAITASUNA LURRALDEKA								
	EUSKAL HERRIA		EAE		NAFARROA		IPARRALDEA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	2.428.100	100	1.778.500	100	437.200	100	212.400	100
Euskaldun elebakarrak	12.400	0,5	9.800	0,6	1.100	0,2	1.500	0,7
Elebidunak	534.100	22,0	438.400	24,7	41.000	9,4	54.700	25,7
Euskal elebidunak	159.600	29,9	128.500	29,3	13.400	32,7	17.600	32,2
Elebidun orekatuak	171.500	32,1	141.700	32,3	11.800	28,9	18.000	33,0
Erdal elebidunak	203.000	38,0	168.200	38,4	15.800	38,4	19.000	34,8
Elebidun hartzaileak	352.900	14,5	290.200	16,3	42.800	9,8	19.800	9,3
Erdaldun elebakarrak	1.528.700	63,0	1.040.000	58,5	352.300	80,6	136.400	64,2

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996. Euskararen Jarraipena. (15 urtetik gorako biztanleak)

3. Euskararen lege-estatusa

Sarreran hizkuntza-plangintzaz jardun garenean, argi utzi dugu termino horren barruan bi alderdi bereiztu izan direla: *corpus-plangintza* eta *estatus-plangintza*. Kontuan izan behar da hizkuntzaren biziraupena eta garapena biak aintzakotzat hartuta, elkarri lotuta daudela eta biak ezinbestekoak direla; hori dela eta, hizkuntza-politika, eta, ondorioz, hizkuntza-plangintza abian duten gobernuek neurriak hartu izan ohi dituzte hizkuntzaren bi arlo horien normalizazioa bideratzeko.

Hortaz, esan behar dugu estatusak corpusean duen eragina ukaezina dela, bera baita hizkuntza giza jarduera desberdinetan erabiltzeko ahalmena ematen duena eta hizkuntzaren garapena ahalbidetzen duena. Izan ere, zenbat eta gehiago erabili hizkuntza gero eta behar gehiago sortzen da. Hizkuntza gauza bizia izanik, etengabe aldatzen ari da, baina prozesu hori modu kontrolatuan gertatu behar da eta horretarako bidea ematen duena, hain zuzen, hizkuntzaren estatus juridikoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoan ***estatus-plangintzaz*** hitz egiterakoan, abiapuntua, ezinbestean, Espainiako Konstituzioan (1978) eta EAEko Autonomia Estatutuan (1979) jarri behar dugu.

Espainiako Konstituzioko 3. artikulua 2. ataletik abiatuta Espainiar Estatuko koofizialtasun-sistema eratzen da. Artikulu horrek zera dio

"...las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas comunidades autónomas de acuerdo con sus estatutos"

Konstituzio espainiarrak, ordea, ez ditu zerrendatzen zeintzuk izan daitezkeen beste hizkuntza ofizialak, Autonomia estatutuak izango dira hori zehaztuko dutenak. Hortaz, Euskadiko Autonomia estatutuak Espainiar Konstituzioak eskainitako aukeraz baliatuz, koofizialtasuna ezarri zuen bere Autonomia Estatutuan.

2002. urtean hogeita hiru urte egingo ditu euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial aldarrikatu zuen Autonomia Estatutuak (1979). Euskarari ofizialtasuna aitortzearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortu zitzaizen herritar guztiei.

6. artikulua

1. *"Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea".*

2. *"Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio*

linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte".

3. *"Hizkuntza dela eta ez da inor gutxietsiko".*

Hasteko, euskararen estatus juridikoari dagokionez, asko izan dira 1979tik hona, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan euskararen gaitasuna, erabilera eta estatusa berreskuratzeko eratutako erakundeak eta egindako arauak. Ipar Euskal Herrian, aitzitik, euskararen aldeko neurriotako bakan batzuek bakarrik ikusi dute argia. Euskal Autonomia Erkidegoan jarriko dugu arreta eta, bukatzeko, gaineratik bada ere, Nafarroako Foru Komunitateko eta Iparraldeko egoerak aipatuko ditugu.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskal Autonomia Erkidegoan hartutako neurri garrantzizkoenetako bat ***Euskararen Erabilera Arauzkotzezko 10/1982 Oinarrizko Legea*** izan da. Lege horrek hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu zuen, gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko euskarari hain beharrezkoa zitzaion erakundeen babesa eskainiz. Horren ondorioz, hizkuntzaren normalkuntzak aurrerapauso handiak eman ditu, batez ere, administrazioan, hezkuntzan, komunikabideetan, eta orokorrean, gizarte osoan, euskararen erabilera sustatzeko gauzatu diren hainbat egitarauen bidez. Hona hemen, bada, arestian aipaturiko arlo horietan, hots, administrazioan, hezkuntzan eta komunikabideetan, 1982ko Oinarrizko Legeak agintzen zuena betetzearren, eratutako erakundeak eta indarrean jarritako arauak:

Administrazioa. Honako hauek dira euskararen erabilera normalizatzeko 1979az geroztik Administrazioaren barruan eratu diren erakundeak:

- Euskararen Aholku Batzordea (1982)
- Euskal Irrati Telebista (EITB, 1982)
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE, 1983)
- Herri Ardularitza Euskal Erakundea (HAEE/IVAP, 1983)
- Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (1983), 1995ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza bilakatu zena

Euskal administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntzari dagokionez, azaroaren 24ko ***Euskararen Erabilera Arauzkotzezko oinarrizko 10/1982 Legearekin*** ekin zitzaion. Lege horrek jasotzen ditu, besteak beste, administrazioarekiko harremanetan herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideak eta herri-aginteei euskararen inguruan dituzten betebeharrak. Hauek dira, beraz, legeak agindutakoa garatzeko azken urteotan onartutako arauak:

-Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea.

Lege honek hautaketa-prozesuetan eta lanpostu-deialdietan euskarak meritu gisa nola jokatu zehaztu zuen. Lanpostu jakin baterako euskara ezinbesteko baldintzatzat jotzeko administrazio publikoek errespetatu behar dituzten baldintza eta mekanismoak ere zehaztu zituen.

-Urriaren 17ko 224/1989 Dekretua. Dekretu horrek benetako administrazio elebiduna lortzeko oinarriak finkatu zituen eta euskararen normalkuntzarako lehenengo plangintza definitu zuen. Plangintza horrek bost urte iraun zuen eta bertan kontzeptu hau zehaztu zen: "hizkuntza-eskakizuna" (lanpostu baten zereginak eta eginbeharrak euskaraz bete ahal izateko beharrezko gaitasun-maila zehazten du; lau gaitasun-maila zehaztu zituen).

-1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua. Dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen da. Dekretuaren indarraldia 2002ko abenduaren 31n bukatuko da eta ondoren, balorazioa egin beharko da.

Hezkuntza. Aipatutako legearen garapenean, Eusko Jaurlaritzak 1983an Elebitasunaren Dekretua aldarrikatu zuen; horren bitartez arautzen dira gaur egun indarrean dauden hezkuntza-ereduak: A (ikasgai guztiak gaztelaniaz + euskara), B (eredu elebiduna) eta D (ikasgai guztiak euskaraz +gaztelania) ereduak.

Bestalde, irakasleei dagokienez, hasieran, irakasleen hizkuntza-gaitasuna hezkuntza elebiduntzearen arazoetako bat izan zen. Gaur egun, aldiz, egoera asko aldatu da, bereziki, hezkuntza-sisteman irakasle euskaldun asko sartu delako eta aldi berean, aktiboan zeuden irakasleek hizkuntza-gaitasuna lortu dutelako. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, IRALE programaren bidez, sare pribatuan edo publikoan aktiboan dauden irakasleei euskara-ikastaroak eskaintzen dizkie.

Azkenik, EAEko Unibertsitateko Kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak zehaztu egiten du irakaskuntzako lanpostu-zerrendek lanpostu bakoitzak daukan hizkuntza-eskakizuna adieraziko dutela eta, beharrezkoa izanez gero, derrigortasun-data. Lege horretan ezarritakoari jarraipena emanez, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan ezartzen dira hizkuntza-eskakizunak eta irakaskuntzako lanpostuetarako derrigortasun-datak zehazteko irizpideak. Eskakizun biko sistema ezartzen da: 1. hizkuntza-eskakizuna, euskarazko klaseak edo klaseak euskaraz ematen ez dituzten irakasleak bete ditzaketen lanpostuetarako, eta 2. hizkuntza-eskakizuna euskaraz ematen dituztenentzat.

Komunikabideak. Irratia, telebista eta prentsa idatzia.

-*Irratia*: EAEko irrati publikoan 24 orduz euskaraz emititzen duten bi irrati daude: *Euskadi Irratia*, programazio konbentzionala daukan emisorea, eta *Euskadi Gaztea*, irrati-formula. Horrezaz gain, badaude beste irrati batzuk ere, lokalagoak eta eskualdekoagoak: batzuek euskaraz baino ez dute emititzen, *Arrate Irratia* eta *Bizkaia Irratia*, kasurako; beste batzuek programazio elebiduna dute: *Donostiako Herri Irratia*.

-*Telebista*: 1982ko Oinarrizko Legeak jasotzen zituen eskubideen artean, herritarrek zeuden komunikabideen programazioa euskaraz jasotzekoa aitortzen zuen. Horren harian, maiatzaren 20ko 5/1982 Legea aipatu behar da. Hain zuzen ere, lege horren bidez sortu baitzen Euskal Irrati-Telebista. EITBk bi kate ditu eta horietako batek, ETB1-ek, euskaraz emititzen du. Bestalde, badaude euskaraz emititzen duten beste telebista lokal batzuk.

-*Prentsa idatzia*: egunkariak direla eta, esan beharra dago gaur egun euskaldunok badaukagula euskarazko egunkari bat: *Euskaldunon Egunkaria*. Egunkari hau ekimen pribatuz sortu zen 1990ean eta 1995. urtean Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu zuen egunkari horrekin diru-laguntzak emateko. Aldizkariei dagokienez, asko dira euskaraz argitaratzen direnak eta gaiak oso zabalak dira. Oro har, pribatuak izaten dira baina herri-aginteen diru-laguntzak jasotzen dituzte. Horien artean, batzuk eremu espezializatukoak dira.

NAFARROAKO FORU ERKIDEGOIA

Foru Eraentza Legea 1982an sartu zen indarrean eta Nafarroako eremu euskaldunetan ofizial egin zuen euskara. 1986an *Euskararen Legea* onartu ondoren, Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Saila eratu zuen 1988an, 1991n Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi bilakatu zena. Gobernuak eremu euskaldunetarako hartu zituen neurriek irakaskuntza-sisteman euskararen irakaskuntza bideratzea eta herri-zerbitzuetan, kultura-jardueretan eta komunikabideetan euskara erabili ahal izateko esparru instituzionalak ezartzea zuten helburu.

Hala ere, 2001eko urtarrilean Nafarroako Gobernuak atzerapauso izugarria eman zuen *abenduarien 11ko 372/2000 Foru Dekretua*, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena onartu zuenean.

IPAR EUSKAL HERRIA

Frantzian, berriz, euskararen, bretoiaren eta okzitanoaren tankerako eskualde-hizkuntzen inguruan, Frantziako Iraultzaz geroztik batez ere, ez da hizkuntza gutxituen aldeko politikarik egin. Eskualde-hizkuntzak gutxietsi egin izan dira eta hezkuntza-sistematik, herri-administrazioaren maila guztietatik eta komunikabideetatik kanpo utzi.

Hala ere, 1951n *"Deixonne Legea"* zela eta, eskualde-hizkuntzen irakaskuntza baimendu zen, baldin eta ikasleek Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak araututako eskola-programa frantsesa betetzen bazuten aldi berean. Dena den, hori aukerakoa zenez, ez zen diru-baliabiderik jarri frantseseko derrigorrezko programaz gain euskarazko irakaskuntza ematen zuten Estatuko ikastetxeentzat. Beraz, gurasoek jartzen zuten horretarako behar zen diru guztia: eraikinen kostua, eta mantentzea, irakasleen soldatak eta eskola-garraioa. Baina 1994an, frantsesez eta euskaraz irakasteko gaitasun-agiria zuten Hezkuntza Nazionaleko irakasleen soldatak ordaintzea erabaki zuen Gobernu Zentralak. 1990ean eratutako Euskal Kultur Erakundeari urtero ematen zaion diru-kopurua kenduta, Frantziako Gobernuak ez du bestelako neurririk hartu euskararen tankerako eskualde-hizkuntzak onestearen alde.

Euskararen corpora


1. Euskara:

- 1.1. Jatorria eta ahaidekoak
- 1.2. Ezaugarri gramatikalak
- 1.3. Euskalkiak
- 1.4. Euskara Batua: historia laburra

1. EUSKARA

1.1. JATORRIA ETA AHAIDETAKOAK

Aurreko mendean hizkuntzak konparatzen eta sailkapen zientifikoak egiten hasi eta zenbait hizkuntzen jatorriak argitzen hasi zirenetik euskararen isolamendua areagotu egin da. Entziklopedia modernoetan agertzen diren hizkuntza-sailkapenetan, adibidez, euskarak leku berezia izan ohi du, ez baitu genealogiarik, ezta ahaidetasun ezagunik ere.



Euskararen jatorri bera duen hizkuntzaren bat aurkitzeko hamaika konparaketa egin dira. Horietako bi izan dira nabarmenenak: lehenak euskara eta ibero zaharraren arteko ahaidetasuna gogorarazten du eta azken urte hauetan asko kritikatu da. Ildo berekoa da euskara eta Afrika iparraldeko hizkuntzak lotu nahi dituen teoria. Bigarren teoriak, bestalde, Kaukasoko hizkuntzekin erlazionatzen du. Teoria honek aldeko ikertzaile asko izan zituen arren, lan-metodologia eta

ondorioen balioa zalantzan dago. Beraz, oro har, euskararen jatorri genetikoa oraingoz ezezaguna dela baietsi daiteke.

1.2. EZAUGARRI GRAMATIKALAK

Euskararen deskribapen xume bat egingo dugu honako hiru ikuspegiak kontuan hartuz:

- Fonologia
- Morfosintaxia
- Lexikologia

Fonologia

Euskara, gaztelania eta frantsesaren arteko azterketa konparatiboa eginez gero, soinu gehienak berdinak edo antzekoak direla ikus daiteke. Badira, hala ere, hainbat desberdintasun:

-Txistukariei dagokienez, gaztelaniak frikari bakarra dauka (apiko-albeolarra), frantsesak bi (bizkar-albeolarra eta sabaiaurrekoa) eta euskarak hiru: apiko-albeolarra, bizkar-albeolarra eta sabaiaurrekoa. Horiei dagozkien afrikatuak ere baditu.

-M, p, d, g, x, h eta j ez dira inoiz hitz amaieran agertzen, ezta r hitz hasieran ere, mailegu berrietan izan ezik.

-Bokalei dagokienetan, berriz, euskarak eta gaztelaniak bosna fonema bereizten dituzte (Zuberoako euskalkian seigarren bokal bat ere bereizten da, gaskoinaren eraginez ziurrenik) frantsesak, berriz, dozenatik gora bereizten ditu.

Morfosintaxia

Euskarak bi ezaugarri berezi ditu: hizkuntza eranskaria da eta kasu ergatiboa du deklinabidean. Deklinabide-kasuak izen sintagmari eransten zaizkio, izen sintagmaren azkeneko osagaiari hain zuzen, eta ez, latinean bezala, sintagmaren zati bakoitzari. Euskaraz deklinatzerakoan atzizkien bidez honako hauek adierazten dira: artikulua, numeroa eta kasuak (gramatikalak, leku-denborazkoak eta gainerakoak). Hona hemen izen sintagmaren eskema:

erroa		+	atzikia	
		artikulua+plurala+kasu-marka		
izen sintagma				

Euskarari buruz sarri aipatzen den beste ezaugarri bat aditzarekiko komunztadurarena da, hots, aditzak subjektuaren pertsona eta numeroa gordetzeaz edo islatzeaz gain, objektu zuzenarenak eta zeharkakoarenak ere biltzen ditu.

Lexikologia

Lexikoaren arloan aldaketa ugari jaso du euskarak azkeneko 2.000 urteetan. Aldi luze horretan euskarak beste hizkuntza batzuekin ukipenean iraun du. Egoera honen ondorioz, maileguen etorrera eta asimilazioa handia izan da.

Mailegu gehienak latinetik eta inguruan sortuz joan ziren erromantzeetatik etorri dira. Hauek dira hizkuntza erromantze horiek: gaztelania, frantsesa, gaskoienera eta biarnesera.

Gaur egun, lexiko tekniko eta modernoa garatzeari begira ahalegin handia egiten ari da. Neologia-sorkuntzan nazioarteko terminoen eta euskarazko altxorretik sortutako terminoen arteko oreka bilatzea da oraingo erronka.

1.3. EUSKALKIAK

Dialektoak dira hizkuntza baten aldaerak edo barietateak. Hizkuntza guztietako hiztunen artean badira, hizkuntza bera hitz egin arren, aldaera desberdinak erabiltzen dituzten hiztun-multzoak, batzuk handiak besteak txikiak. Aldaera horien arteko muga ezartzea ez da erraza, dialekto bat zehazten duten eta beste dialektoetatik bereizten dituzten ezaugarri guztiek ez baitute hedapen bera izaten. Geografia linguistikoa diharduten adituek, fenomeno horiek aztertuz eta mugarteak ezarriz, arduratzen dira dialektoak bereizteaz.

Euskal ikerlariak antzinatek ikusi zuten bazegoela euskaraz hitz egiteko modu bat baino gehiago. A. Oihenart (1638) izan zen euskalkiak desberdintzen lehena, eta antzinako euskal tribuetan oinarrituz lau bereizi zituen: Bizkaikoa; Gipuzkoa eta Arabakoa; Nafarroakoa eta, azkenik, Iparraldekoa. Larramendik (1690-1766) bi sailkapen egin zituen, lehenengoan hiru euskalki (bizkaiera, gipuzkera eta nafar-

lapurtera) eta bigarrenean bost (bizkaiera, Arabakoa barne; gipuzkera; nafarrera; lapurtera, Nafarroa Beherekoa barne; eta zuberera) bereiziz. Edonola ere, euskalkiak sailkatzen aritutakoen artean garrantzitsuena L.L. Bonaparte dugu, dudarik gabe. Guztira lau sailkapen egin bazituen ere, interesgarriena eta gerora kontuan gehien hartu izan dena azkenekoa da, 1869koa alegia. Zortzi euskalki bereizi zituen: bizkaiera, gipuzkera, iparraldeko goi-nafarrera, hegoaldeko goi-nafarrera, lapurtera, mendebaldeko behe-nafarrera (aezkera barne), ekialdeko behe-nafarrera (zaraitzuera barne) eta zuberera (erronkaria barne). Horrekin batera, 25 azpieuskalki banatu zituen hauen barnean.

Gaur egun zenbait puntu zalantzan jarri bada ere (aezkera eta zaraitzuera independentetzat jotzen dira, erronkaria zubereratik banatzen da, etab.), eta gai honetako ikerlarien artean (Vinson Van Eys (1879), A. Campion (1884), P. Inza (1884-1992), Lacombe (1879-1947), Yrigaray (1869-1949), Yrizar (1973...) Azkue (1864-1951), Euskaltzaindiko lehen euskaltzainburua izan da nagusi. Azkuek, Bonaparteren sailkapenari jarraituz, honako aldaketak proposatu zituen: erronkaria euskalkitzat jotzea, goi-nafarrera euskalki bakarra izatea bai eta behe-nafarrera ere. Azken urteotan, ugalduekin egin dira euskal dialektologia lantzen dituzten lanak, denen artean garrantzitsuena Euskaltzaindia egiten ari den ***Euskararen Herri Hizkeren Atlas*** izanik.

1.4. EUSKARA BATUA

Euskara euskalkitan banatua iritsi zaigu. Euskalkion arteko desberdintasunak ez dira oso handiak hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, baina aski handiak dira hiztun arruntek elkarri ulertzeko sarritan zailtasunak izan ditzaten. Beraz, ***hizkuntza estandar***aren helburua begi bistakoa da: euskaldun guztiek ulertu ahal izango duten hizkuntza komuna ezartzea euskalkien gainetik. Helburu hori lortzeko, garrantzitsua da bai hizkuntza estandarra normalizatzea (lan hori Euskaltzaindiari dagokio) eta bai hezkuntzaren, komunikabideen eta gainerako kanalen bidez hizkuntza normalizatua zabaltzea.

Historia laburra

Euskara batzeko beharra gure lehen idazleek ere aipatu zuten. Baina Euskaltzaindia sortu zenean (1919) helburu nagusietako bat bihurtu zen. Hasieran, proposamenik indartsuena gipuzkera oinarri zuena izan zen (Azkue). Gerra ostean Euskaltzaindiak berriro heldu zion auzi honi eta literaturaren historia aztertu ondoren lapurtera klasikoa hartu zuen eredu (Krutwig). Urte batzuk beranduago batasuna sustatu zuten beste hainbatek (Aresti, Txilardegi, Kintana) eta belaunaldi berriko idazleek, aldizkariak eskaintzen zieten azpiegituraz baliatuz, zenbait arau ortografikoren inguruan eztabaidatzen zuten. Aldizkari horiek, ondoren, erabakitako arauak betetzen zituzten. Ekimen horiek, jakina, zabalkunde txikiagoa nahiz handiagoa izan, talde edo sektore mugatuak

burutzen zituzten. Egoera horretan, Pirinioen bi aldeetako idazleek osatutako multzo batek bilera zabal bat egitea erabaki zuen. Bilera horren helburua berehala argitalpenetan aplikatu ahal izango zen aurre-egitasmoa osatzea zen. Baionako Biltzarra (1964) deiturikoa egin zen. Idazle askorentzat bilera hori arauen inguruko erreferentzia bihurtu zen. 1968an Baionako taldea Ermuan bildu zen Euskaltzaindiari bere jarrera zein zen argi zezan eskatzeko. Orduan erabaki zen **Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarrerako** deia egitea (1968 urriak 3-5). Biltzar hori amaitu ondoren, bateratzeko lehengo arau-multzoa izan zuen euskarak. Lehen egitasmo hark ortografia, morfologia, deklinabidea eta neologismoak jorratu zituen. Arau horiek hizkuntza idatziari zegozkion. Proposamen horrek gipuzkera eta nafarrera hartu zituen oinarri eta bigarren mailan ertzetako euskalkietako aldaerak.

Hurrengo urteetan Euskaltzaindia egitasmo hori osatuz joan da. Aditza batzeko Aditz Batzordeak 1973an egindako proposamena azpimarra dezakegu. Proposamen hori 1978an gauzatu zen aditzari buruzko gramatika bat argitaratu zenean.

1979an Euskaltzaindiak "h" letraren erabilerari buruzko argibideak eskaini zituen. Garai horretakoak ere dira: aditz trinko batzuen paradigmak, Euskal Herriko herrien izendegia, matematika-hiztegia, kontsonante palatalak idazteko arauak eta gomendioak, erakusleen deklinabidea,...

1968tik 1980ra bitartean argitaratutako arau, gomendio eta hitz-zerrenda hauek abiatzeko behar ziren gutxienekoak estali bazituzten ere, ez zieten heldu arazo handiei, hala nola, hiztegi historikoari, hiztegi arauemaileari, gramatikari edo euskalkien atlasari.

1980tik aurrera Euskaltzaindiak Iker Saileko batzordeak eta Jagon Saileko batzordeak izendatu zituen gai hauek lantzeko. Iker sailean, Hiztegitintza, Gramatika, Dialektologia, Onomastika, Literatura batzordeak eta batzorde suntsikorrak. Jagon Sailean, berriz, Corpus eta Sustapen batzordeak.

Iker Saila

Hiztegitintza Batzordea
Gramatika Batzordea
Dialektologia Batzordea
Onomastika Batzordea
Literatura Batzordea
Batzorde suntsikorrak

Jagon Saila


Corpus Batzordea
Sustapen Batzordea

Euskararen corpora

2. Corpus-plangintza (eskema)

EUSKARAREN CORPUS-PLANGINTZA:

Corpus-plangintzak hizkuntza bera sistema gisa hartzen du. Corpus-plangintzak hartzen dituen gaien artean, dialektoez gaindiko *hizkuntza estandarren sorkuntza* eta *hizkuntzaren modernizazioa* dira euskararen kasuan garrantzitsuenak.



Euskararen corpora

3. Corpus-plangintza

- 3.1 Hizkuntzaren deskribapena eta ezaguera sakona
 - 3.1.1. Euskal Gramatika
 - 3.1.2. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)
 - 3.1.3. Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS)
 - 3.1.4. Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)
 - 3.2. Hizkuntzaren estandarizazioa
 - 3.2.1. Bereziki hizkuntza idatzirako finkatu beharrekoa: ortografia
 - 3.2.2. Bereziki ahozko hizkuntzarako finkatu beharrekoak: ahoskera, azentua
 - 3.2.3. Hizkuntza idatzirako zein ahozkorako finkatu beharrekoak: gramatika, hiztegia, izen bereziak, hizkuntzaren erregistro desberdinak
 - 3.3. Hizkuntzaren modernizazioa
 - 3.3.1. Terminologia / Teknolektoak
 - 3.3.1.1. Hona egun terminologi lana egiten duten erakundeak
 - 3.3.1.2. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) abian jarri duen terminologi lan-plangintza berria
 - 3.3.2. Hiztegiplangintza / Erreferentzia-lanak
 - 3.3.3. Hizkuntzen teknologia
 - 3.3.3.1. Sarrera
 - 3.3.3.2. Euskara eta Informazioaren eta Komunikazioaren teknologia berriak
 - 3.3.3.3. Euskararen aurrerapenak Informazioaren eta Komunikazioaren teknologia berrien arloan
- Eskema

3. Corpus-plangintza

Normalizatu beharreko hizkuntza baten corpusaren plangintzan kontuan hartu beharreko arlo nagusiak honako hauek dira:

- 3.1. Hizkuntzaren deskribapena eta ezaguera sakona
- 3.2. Hizkuntzaren estandarizazioa
- 3.3. Hizkuntzaren modernizazioa

Premia nagusi horiei erantzuteko euskarari dagokionez hainbat lan egin dira Euskal Herrian eta, egia esan, corpusaren alorra gaur egun nahikoa landuta eta bideratuta dagoela esan daiteke; hala ere, ukaezina da oraindik hainbat gauza lantzen eta finkatzen jarraitu beharra dagoela hizkuntzaren corpusaren normalizazioa erdietsi arte.

Hona hemen, orain arte euskararen corpusaren normalizazioari begira egin diren eta aurrerantzean egiten jarraitu beharko liratekeen lan nagusiei buruzko azalpena:

3.1. Hizkuntzaren deskribapena eta ezaguera sakona

Gaur egun Euskal Herrian egiten ari diren euskararen erabileraren lan deskribatzaile nagusiak Euskaltzaindia, Hizkuntza Akademia egiten ari da. Lan hauek Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek Euskaltzaindiarekin izenpetzen dituzten lankidetzak-hitzarmenei esker aurrera egin dute.

Bestalde, edozein hizkuntza ongi ezagutzeko hainbat lan egin behar izaten da hizkuntza horren erabilerari buruzko datuak izateko, eta, horretarako, hizkuntzaren erabilera deskribatzen duten lanak egitea komeni izaten da. Lan horiek bereziki interesgarriak dira hizkuntzaren osagai desberdinak (gramatika, lexikoa, ...) estandarizatzeko erabakiak hartzeko orduan, kontuan hartu beharreko datuak eskaintzen dituzten lan deskribatzaileak izaten direlako.

Egun Euskal Herrian egiten ari diren euskararen erabileraren lan deskribatzaile nagusiak honako hauek dira:

3.1.1. Euskal Gramatika

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea aspaldidanik ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen, eta 1984tik 1994ra bitartean zazpi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* izenburuarekin. Euskara idatziaren historian zehar gramatikazko egitura ezberdinak, lokailuak, juntagailuak, etab. nola erabili izan diren deskribatzen duen lana da. Berez, ez da gramatika arauemailea, gramatika arauemailea egiteko orduan oso kontuan hartu beharreko informazioa ematen duen lana baizik. Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da, gai horretaz hiru liburu argitaratzeko asmoz. Horietako lehenengoa 1999an kaleratu zen: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - V (Mendeko perpausak - 1)*.

3.1.2. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

Orotariko Euskal Hiztegiaren xedea, hiztegi historikoa (1970. erainokoa) eta deskriptiboa den aldetik, garai, toki eta euskalki guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. Menderik mende eta euskalkietan zehar euskaldunak nolako hizkuntzaz baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzeko helburua du hiztegi horrek. Ia hirurehun liburutatik jasotako corpusa aztertuta, lau milioitik gorako hitz-altxorrarekin lan egiten da. Hots, tradizioaren bilketa-lanean oinarritzen da proiektua. Hiztegiaren I. liburukia 1987an argitaratu zen, eta XIII. 2001ean.

Laster corpus hau kontsultagai egongo da Euskaltzaindiak daukan web orrian: www.euskaltzaindia.net.

3.1.3. Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistemakoa (EEBS)

XX. mendeko euskara jasotzen duen corpus estatistikoa da hau, 4.658.036 testu-hitzez osatua. Erabili izan den eta erabiltzen den euskararen lekuko eta erakusgarri izatea du egiteko nagusi eta ia bakarra, eta ez ereduzko hizkuntza proposatzea.

Corpus estatistikoaren oinarria, XX. mendeko euskal argitalpenen inbentario osoa da, irizpide hauen arabera sailkatua: garaia, euskalkia eta testu-mota. Argitalpenek osatzen duten unibertsoetik abiatuta, osotasun hori proportzionalki adieraziko duen lagina eskuratu da zozketa bidez, orotara jasotako 6.351 obratzatik osatzen dutena.

Corpus irekia da oraingoz, urtero eguneratzen dena, nahiz laster corpus itxi izatera pasako den, mende oso baten erakusgarri. Bestalde, euskara idatzia jaso da hor, ez ahozkoa. Ahozkoek badute bere lekua, baina transkribatu eta

argitaratu diren neurrian jaso dira.

Proiektua Euskaltzaindiaren Hiztegitik Batzordearena bada ere, lana UZEIk egin du.

Honako helbide honetan kontsulta daiteke:
www.euskaracorpora.net/XXmendea/index.html

3.1.4. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA)

Beste hizkuntza atlas batzuen kasuan bezalaxe, euskararen hizkuntza atlasak ere euskararen eremu osoan barreiatutako inkesta puntu batzuetan (Nafarroa eta Iparralde barne) hizkuntza mintzatuen errealitatea jasotzen du bere estatus dialektalean; hau da, euskaraz hitz egiten den lurralde osoan aukeraturiko puntuetan euskaraz nola hitz egiten den jasotzen du.

Bestalde, Euskaltzaindiak euskararen hizkuntza atlasaren egiteko bildu dituen dokumentuen artean, grabaketak aurkitzen dira, euskararen eremuko 145 herritan, 1986 eta 1992 artean, eginak. Grabaketa horiek, 4000 ordu baino gehiagoko hizketaldiak eskaintzen dituztenak, CD-ROMetan bilduak izan dira. Hori horrela egoki iruditu zaio Euskaltzaindiari ondare horretaz baliatuz, ohiko euskal mintzamoldeen antologia moduko zerbait moldatzea, eta euskarri erabilerraz batean ematea. Horren emaitza **Ohiko euskal mintzamoldeen antologia** lana dugu eta Euskaltzaindiaren web gunean kontsulta daiteke.

3.2. Hizkuntzaren estandarizazioa

Normalean, lan hau hizkuntzaren akademiei dagokie, akademiak dauden herrietan. Gure kasuan, beraz, euskararen estandarizazioa Euskaltzaindiaren egitekoa da nagusiki.

Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun egin zuen biltzarrean ekin zion euskara batua finkatzeko urrats sendoak emateari.

Estandarizazioaz mintzatzen garenean, batez ere, hizkuntza idatzirako finkatu beharreko ereduaz ari gara. Baina, ez dugu ahozko hizkuntza ahaztu behar. Izan ere, badaude arau batzuk hizkuntza idatzirako direnak (ortografia), beste batzuk ahozko hizkuntzarako direnak (ahoskera, azentua...) eta, azkenik bi hizkuntza-motentzat ezarri behar direnak (arau gramatikalak, lexikoak, hizkuntza-erregistroak...).

3.2.1. Bereziki hizkuntza idatzirako finkatu beharrekoa: ortografia

Euskararen ortografia 1968. urtean Arantzazun egin zuen biltzarrean finkatu zuen gehienbat Euskaltzaindiak eta harrezkero hartutako zenbait erabakiren ostean, ortografia ia erabat finkaturik dugula esan daiteke.

3.2.2. Bereziki ahozko hizkuntzarako finkatu beharrekoak: ahoskera, azentua

Euskaltzaindiak 1998an ahoskerari buruzko batasunerako irizpideak eman zituen. Beti ere, gogoan izanik hizkera zaindua, maila jasokoa, erabili behar denerako direla irratitelebistetak berri-emanaldietarako, jendaurreko hitzaldietarako, eskolako azalpenetarako eta horien antzeko egoeretarako.

Hona hemen Euskaltzaindiak gai honetaz dioena:

“Euskara Batuaren ahoskera zaindua (EBAZ) ahozko hizkuntza estandarra izango da, alegia hitzun ororen erreferentzia tresna, hizkuntzaren maila formaletan erabili beharko dena.

EBAZ ez da orain arteko hizkeren ordezkotzat hartu behar, osagarritzat baizik. Ez da Euskara Batua ahoskatzeko modu bakarra eta are gutxiago, noski, euskalkiak ahoskatzeko era.

Besteak beste, horrek esan nahi du EBAZ ingurukoaz edo irakaslearen ahoskera biziaz gainera irakatsi beharko dela eta ez haren ordeiz. Era berean, on da, komunikabideek ere askotariko eredu edo eredu malgua ematea.”

3.2.3. Hizkuntza idatzirako zein ahozkorako finkatu beharrekoak: gramatika, hiztegia, izen bereziak, hizkuntzaren erregistro ezberdinak

***Gramatika.** ikus 3.1.1.

***Lexikoa.** Edozein hizkuntzatan, ahozko zein idatzizko erabilerarako, ezinbestekoa da estandarizazioari begira lexikoa aztertu eta hitz-multzo nagusia finkatzea (forma finkatu, adierak bereizi, ...). Hitz-multzo horren barnean lexiko arrunta zein berezia (terminologia) sartuko lirarteke.

Euskaltzaindiaren eginkizun nagusietako bat da, bete-betean eta zalantzarik gabe, euskararen ohiko hitz altxorra eguneratzea eta bateratzea. Dena den, Euskaltzaindiak aspaldi erabaki zuen bere lana ez zela hiztegi espezializatuak sortzea.

Euskararen lexikoaren estandarizazioari begira gaur egun Euskaltzaindiak duen lan nagusia da, zalantzarik gabe, **Hiztegi Batua**. Hiztegi hori egin ahal izateko oinarritzat hartu dira goian aipaturiko bi lan: *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* eta *Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS)*.

Hasiera batean, Euskaltzaindiak arlokako eta zatikako zenbait hiztegi onartuak

zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako Hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatal Izendegia*, etab. Hiztegi hauez gainera, Akademiak nahitaezkoztat jo zuen euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea. Horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko Batzordea.

Euskaldunak eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituen hitzak finkatzea da xedea, beti ere hizkuntzaren batasunari begira.

Hiztegi Batuaren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuenak jaso dira. Bigarren batean erabilera urriagokoak jasoko dira. Lehenengo itzulian 20.000 hitz inguru landu eta onartu dira. Bigarren itzuliak beste horrenbeste forma izango ditu aztergai. Batzordeak 1997an ekin zion bigarren itzuli horri. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitz inguru izan ditzake *Hiztegi Batuak*. Euskaltzaindiak lehen itzuliko formak, hitz-zerrendak osoko batzarretan aztertu ondoren, arau gisa eman ditu argitara, atalez atal. Liburu bakarrean, *Euskera* agerkariaren 2000ko 2. zenbakian, hain zuzen, argitaratu dira lehen itzuliko hitz-zerrenda horiek guztiak.

Honako helbide honetan kontsulta daiteke: www.euskaltzaindia.net helbidean.

*** Onomastika:**

Izen bereziak (toponomastika). Izen bereziak (pertsonek zein tokien izenak) hizkuntza osatzen duten elementu izugarri garrantzitsua dira. Izen propioak alde guztietan eta erruz agertzen dira jendearen eguneroko bizimoduan (elkarrizketa arruntetan, norberaren dokumentuetan, administrazioko era guztietako erroldetan, komunikabideetan, eskoletako testuliburuetan, mapa eta planoetan, errepideetako errolduetan, era guztietako komertzioen erroldak, iragarki eta propaganda orrietan, eta abarretan).

Euskaltzaindiari dagokion lana da Euskal Herriko pertsonen izen-deiturak eta toki-izenak finkatzea (endonomastika). Halaber, Euskal Herriaz kanpoko pertsonaia historikoen izenak eta zenbait toponimo (estatuen izenak, hiriburuenak, mendienak, itsasoenak...) finkatu ditu.

Ponte-izenak: Euskaltzaindiak egindako lan hau 2001ean argitaratu zen eta interneten bidez kontsulta daiteke: www.euskaltzaindia.net

Deiturak: Euskaltzaindiak 1998an 10.000 deitura jasotzen dituen liburua argitara eman du. Bertan forma estandarra azaltzen da. Halere, eranskin bat osatzen ari dira liburu horretan agertu ez diren deiturak biltzeko. Lan hori ere www.euskaltzaindia.net helbidean kontsulta daiteke.

Toki-izenak, toponimia: Euskaltzaindiak landu zuen gai hau eta 1986. urtean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak argitaratutako *Euskal*

Herriko Autonomi Elkarteko Herrien Izenak delako argitalpenean jaso zen Euskaltzaindiaren lanaren emaitza. Euskaltzaindiak garai horretan egin zituen proposamenak berrikusi egin ditu eta 2001. urtean EUDELeK (Euskal Udalen Elkartek) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera argitara eman zuen egindako lana: *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateen Izendegia*.

Halaber, Nafarroako, Lapurdiko eta Zuberoako herri-izendegiak egin ditu Euskaltzaindiak. Izendegi hauek guztiak Euskaltzaindiaren web gunean daude kontsultagai.

Toponimia xeheari dagokionez, Euskaltzaindiak Euskal Herriko toponimia xehea finkatzeko hizkuntza-irizpideak finkatu ditu eta 2000an "Euskera" agerkari ofizialean argitaratu zituen: *Toponimia txikia arautzeko irizpideak* (separata).

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak milioi erditik gorako toponimoen datu-basea dauka. Toponimoak hiru multzotan sailkatuta daude: jasotakoak (255.000); dokumentatuak (192.000); normalizatuak (117.000). Arabako eta Gipuzkoako lurraldetakoak 1:5.000 eskalan eta Bizkaikoak 1:25.000 eskalan. Datu-bankua

www.euskadi.net/euskara_eaetoponimia helbidean kontsulta daiteke.

Bestalde, 2001ean Bizkaiko toponimiaren berrikusketa-lana abian jarri zuen HPSk eta lan horren normalizazioan aplikatu beharreko hizkuntza-irizpideak finkatu zituen Euskaltzaindiarekin batera.

Horretaz gain, Euskararen Aholku Batzordearen barruan, Toponimiako Batzorde-atal Berezia dago. Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak finkatu, aldatu eta berreskuratzeko aholkuak ematea eta proposamenak aurkeztea dira batzorde-atal horren egitekoak. Toponimia Batzordeak 1999-2001 urteetarako onartutako Toponimiari buruzko Jarduketa-Planaren barruan egindako lanen artean arestian azaldutakoez gain, honako hauek aipatuko ditugu:

- *Izen Geografikoen Glosarioa.*
- *Udalek toponimia-lanetan erabiltzeko aplikazio informatikoa.*
- Toponimia jasotzeko fitxa-eredua sortu eta zabaltzea.
- *Prestakuntza bereziko ikastaroak (I. Toponimia-mintegia 2000ko ekainaren 12tik 16ra)*
- *Toponimia-lanerako eskuliburua*

*** Hizkuntzaren erregistro desberdinak.** Edozein hizkuntzaren ahozko zein idatzizko erabilerarako egoera ezberdinetan erabiltzeko hizkuntza-erregistro ezberdinak behar izaten dira. Gurean, gutxi jorratu den gaia dugu hau.

3.3. Hizkuntzaren modernizazioa

Normalizazio bidean dagoen hizkuntza batek modernizatzeko premia dauka, batez ere, hiztegi teknikoei eta erabilera-eremu desberdinek eskatzen dituzten diskurtso-motei dagokienez.

3.3.1. Terminologia

3.3.1.1. Egun terminologi lana egiten duten taldeak:

UZEI

Euskal Herrian terminologiaren lanketa sistematikoari lehendabizi heldu zion lantaldea UZEIkoa izan zen. Lan horren emaitza dira urteotan zehar argitaratu den hainbat eta hainbat hiztegi (Ekonomia, Finantzak, Administrazioa, Enpresa, Estatistika, Zirkulazioa, Matematika, Fisika, Kimika, Biologia, Medikuntza, Teknologia, Filosofia, Psikologia, Linguistika, Zuzenbidea, Arteak, Meteorologia, Medikuntza, Hirigintza, ...) eta hiztegi guztietako eduki eguneratua jasotzen duen EUSKALTERM izeneko terminologia-bankua (gaur egun, Eusko Jaurlaritzarena da eta Euskal Terminologia Banku Publikoa da eta honako helbide honetan kontsulta daiteke: www.euskadi.net/euskalterm).

Hauek dira, besteak beste, UZEIren helbururik nagusienak:

- Euskararen normalizazio linguistikoaren alde lan egitea, hizkuntzaren erabilerarekin zerikusia duten balio erantsiko zerbitzuak eskainiz. Kulturatik eta goi-mailako zientzietatik sortzen diren, eta etorkizunean sortuko diren, premietara euskara moldatu eta egokitu ahal izateko euskararen ikerketan, normalizazioan eta hedapenean diharduten erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.
- Euskararen barnean, xede berezietako hizkeren finkapena eta hedapena sustatzea. Euskararekin zerikusia duten hiztegi eta lan terminologiko eta lexikografikoak egitea, horretarako irizpide lexikografikoak eta terminologikoak finkatuz. Euskal Herriko proiektu terminologikoen aholkularitza eta koordinazioa egitea.
- Hizkuntza naturala prozesatzeko proiektuetan parte hartu eta hizkuntzalaritza aplikatuaren arloan ikerketak bultzatzea eta indartzea. Hizkuntzalaritzari aplikatutako ikerketa-lerro desberdinen baitan difusio-sistema modernoak bultzatu, informatika eta telekomunikazioen arloko teknologia berriak baliatuz.

- Datu-banku terminologikoa eta Datu-base lexikografikoa antolatu eta mantendu. Terminologia eta lexikografiako ikastaroak antolatu eta eman. Lexikografiari eta terminologiari buruzko biltzarretan eta jardunaldietan parte hartu. Kontsulta telematikoaren zerbitzuak sortu eta mantendu.

ITZULTZAILE ZERBITZU OFIZIALA (IZO)

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko **Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren** baitan **Terminologia Atala dago**. Lantalde horren funtsezko eginkizuna da, batetik, euskarazko lege- eta administrazio-hizkera modernoa sortu, estandarizatu eta hedatzea eta, bestetik, lege- eta administrazio-terminologia finkatzea (38/2000 Dekretua, otsailaren 29koa, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duena).

Dagozkion eginkizunak betetzeko, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak honako atal funtzional hauek ditu:

- a) Itzulpengintza eta Interpretazioa
- b) Terminologia

Arestian aipaturiko Dekretuaren arabera, hauexek dira IZOko Terminologia Atalak eskaintzen dituen zerbitzuak:

- Oro har, euskarazko lege- eta administrazio-hizkera eta terminologiarekin zerikusia duten kontsultak jaso eta erantzungo ditu; eta terminologiako lan-tresnak –terminologia-bankuak, glosarioak eta bestelakoak- eskainiko dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan itzultzen diharduten langileei.
- Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak, nolanahi ere, bere gain hartuko ditu eskatzen zaizkion itzulpen-, interpretazio-, ziurtatze- eta terminologia-zerbitzuak, nahiz eta aurreko paragrafoetan jasota ez egon, betiere, zerbitzu ofizialak, aurretiaz, zerbitzuok ematea onartu badu.

Bestalde, UZEIko eta HAEEko lantaldeak lankidetzan ari dira azken urteotan, terminologia finkatzeko irizpideak bateratzeko asmoz.

ELHUYAR Kultur Elkarte

Euskalgintzaren arloko zerbitzu-enpresa da, beraz, Elhuyar lau sail nagusitan ari da gaur egun:

- a) Irakaskuntzaren munduko materialen produkzioa eta irakasleen prestakuntza
- b) Hiztegiak eta entziklopediak
- c) Zientziaren dibulgazioa
- d) Euskara lan-munduan txertatzeko langintza
- e) Kanporako hizkuntz zerbitzuak

Terminologi lana modu sistematikoan egiten ez badu ere, hainbat lan argitaratuak ditu:

- Munduko ugaztunen izendegia*
- Munduko hegaztien izendegia*
- Energiaren Hiztegi Entziklopedikoa*
- GEOLOGIA. Hiztegi Entziklopedikoa*
- Ingurugiro Hiztegi Entziklopedikoa*
- Gizarte-laneko Hiztegia*

EUSKARA INSTITUTUA (EHU-UPV)

Euskal Herriko Unibertsitateko (UHEko) Euskara Institutua 1996ko abuztuan sortu zen arren (1996ko abuztuaren 16ko EHAA, 156 zk., 12.715-12.716 orr.), ez zen lanean hasi 1997-1998 ikasturtea arte.

Erakunde horren orain arteko ibilbidean hiru eginkizun nagusi hauei eman zaie lehentasuna:

- a) EHUko irakasle elebidunentzako euskarazko hobekuntza-ikastaroak antolatzea.
- b) Ikastaro horietako langaiak biltzen dituzten argitalpenak bultzatzea.
- c) Unibertsitate-mailako ikasliburuak hizkuntzaren aldetik ikuskatzea.

2001-2002 ikasturtean, ordea, Euskara Errektoreordetzaren erabakia izan da Euskara Institutua giza baliabide berriekin sendotzea. Horrezaz gain, 2001-2002 eta 2002-2003 ikasturteetarako jartzen diren helburu edo konpromisoak zehaztu dira plangintza baten bidez. Gauzak horrela, etorkizun hurbilean Institutuaren jarduera-lerro nagusiak honako hauek izango dira:

1. Hizkuntza-prestakuntza
2. Hiztegiak eta terminologia
3. Testugintza
4. Aholkularitza
5. Bestelako zereginak

3.3.1.2. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) abian jarri duen terminologi lan-plangintza berria

Euskararen Aholku Batzordeak eginiko, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak onartutako eta Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean sendetsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPNk) VI. atalean finkatzen ditu euskarak datozen hamar urteetan izango dituen erronkak. Erronka horiek hiru mailatan bereizita agertzen dira: helburu nagusia, helburu estrategikoak eta helburu zehatzak eta proposamen-egitasmoak. Helburu zehatzen artean, VI.3.3.a atalean "*Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea*" azaltzen da; besteak beste, honako hau agintzen du Planak horri dagokionez: "*Hiztegi batua amaitu eta argitaratu. **Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako***".

Horren ildotik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Planak agindutakoa gauzatzeko, beharrezkotzat jo zuen datozen hamar urteetan egingo den terminologi lana antolatu, koordinatu eta kudeatzeko plana egitea.

Aipaturiko terminologi planak 2 ardatz nagusi ditu:

a) Euskararen terminologi banku ofiziala sortzea.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPNk) agindutakoa betez, HPSk **EUSKALTERM Terminologi Banku Publikoa** sortu du. Bankuaren oinarria EUSKALTERM izan da berau baita herri-aginteez diruz lagundutako terminologi banku bakarra eta terminologian egin diren bateratze-ahaleginak eta hartutako erabakiak biltzen baititu. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak mugarik gabeko lagapen-kontratua izenpetu zuen UZEIrekin (2001eko uztailaren 13an) eta kontratu horren bidez, Eusko Jaurlaritzak bankua eguneratzeko, elikatze, eraldatzeko eta zabaltzeko eskubideak eskuratu zituen. Esan bezala, Eusko Jaurlaritzak **EUSKALTERM Terminologi Banku Publikoa** erabiltzaileen esku jarri du kontsultagai eta doan eskaintzen du Interneten bidez: www.euskadi.net/euskalterm.

Terminologi Banku Publikoa HPSk kudeatzen du eta eguneratze- eta elikatze-lanak gauzatzeko HPSk kontratua izenpetu zuen UZEIrekin (2001-2003).

Bestalde, kontratuko xede diren lanak HPSk eta HAEEK (terminologia juridiko-administratiborako) finantzatzen dituzte eta horretarako bi erakunde horiek beren arteko hitzarmena izenpetu zuten.

b) Terminologia Batzordea eratzea

Behin baino gehiagotan aipatu izan da terminologiari buruz egindako biltzarretan, euskarazko terminologiari dagokionez, arlo horretan erabakiak hartuko lituzkeen batzorde bat sortzeko premia (azken aldian, 1997an, Donostian egindako Nazioarteko Terminologia Biltzarrean). Izan ere, lexiko arrunta edo orokorra aztertu eta finkatzea Euskaltzaindiari dagokio, ez ordea, teknolektoetan erabiltzen diren terminoak aztertzea eta finkatzea. Euskaltzaindiak aspaldi aitortu zuen terminologia ez dagoela bere eginkizunen barruan eta arlo horretan organo aholku-emailea izango dela.

Izan ere, terminologi lana hizkuntzalariek eta lantzen den eremuko adituen artean egin beharreko lana da, azken finean, kontzeptu eta izendapen berezituak eremuko adituek erabiltzen dituzte eta ez hiltun arruntek.

Hori horrela, euskarazko terminologi arloan erabakiak hartuko dituen Terminologia Batzordea sortu da Euskararen Aholku Batzordeko batzorde-atal berezi gisa (179/2002 DEKRETUA, uztailaren 16koa, Euskararen Aholku batzordearen antolamendu eta funtzionamenduaren araudia aldatzeko eta bateratzeko zen Dekretuaren aldaketa egiten duena. EHHA 148 zk.).

Terminologia alorreko lehentasunak finkatu, lan-proposamenak egin, terminologi lanerako irizpideak eman eta termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatu, landutako terminologi lanei onespina eman, finkatutako terminologiak zabaltzeko bideak proposatu eta terminologia horien erabilera gomendatzea izango dira batzorde-atal bereziaren egiteko nagusiak.

Terminologiaren normalizazioak dituen berezitasunak direla eta, Terminologia Batzordeak erregimen berezia izango du eta eskumenak izango ditu esparru horretako proposamenak egiteko eta gomendioak emateko.

Aipatu diren berezitasun horietan oinarrituta, halaber, Terminologia Batzordean gai horrekin zerikusirik duten hainbat jakintza-gaitako, arlotako eta erakundetako ordezkariak izango dira.

Hona Terminologia Batzordearen osakera:

- a) Lehendakaria: Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- b) Lehendakariordea: Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria
- c) Idazkaria: Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko idazkaria
- d) Ondorengo erakundeek eta organismoek proposatuta izendatuko diren bokalak:

EAEko Administrazioako ordezkariak:

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria
- HAEEko ordezkaria
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuko ordezkaria

EAEko Administrazioaz kanpoko ordezkariak:

- Euskaltzaindiko ordezkaria
- UZEIko ordezkaria
- Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

e) Gehienez ere beste 6 bokal, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuak terminologian eta euskararen aditu direnen artetik. Izendapen honetarako euskararen hizkuntza-komunitatearen lurraldeetako ordezkariak izateari ere begiratuko zaio.

f) Lantzen den terminologia eremu jakinaren arabera, beste aditu batzuk ere izenda ditzake Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, batzordeko kideen lanaren lagungarri. Lana amaitu arteko izendapena izango dute kide hauek.

3.3.2. Hiztegigintza / Erreferentzia-lanak

ELHUYAR

Paperean nahiz euskarri informatikoan (CD-ROM eta on-line) lantzen ditu bere produktuak, teknologiaren baliabideak erabiltzaileen zerbitzura jarritz.

Hiztegi elebidunak:

ELHUYAR HIZTEGI TXIKIA. Euskara/Gaztelania - Gaztelania/Euskara

ELHUYAR HIZTEGIA. Euskara/Gaztelania - Gaztelania/Euskara)

www.euskadi.net/hitz_el

Euskara-Errusiera / Errusiera-Euskara HIZTEGIA

Euskara-hiztegiak:

EUSKAL HIZTEGI MODERNOA

IKASLEAREN HIZTEGIA

SINONIMOEN KUTXA Sinonimo eta antonimoen hiztegia

KLAUDIO HARLUXET

Klaudio Harluxet Fundazioa zenbait kultur gilek sortu zuten 1996. urtean euskal kultura teknologia berriei hornitzeko eta sendotzen laguntzeko. Bere helburu nagusia Euskal Herriko eta munduko informazioa bilduko duen fondo entziklopedikoa lortzea, mantentzea eta ustiatzea da, beti ere teknologia berriei baliatuz.

Fondo entziklopedikoak izaera multimedia du eta bildu duen informazioak euskaldunei Euskal Herriari eta munduari buruzko datuak emateko eta munduari Euskal Herriari buruzko datuak emateko balio du.

Plazaratutako obrak:

- *Entziklopedia*
- *Entzikloklia* CD-ROMa (Gazteen Entziklopedia, Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa eta beste zenbait artikulu)
- *Harluxet Hiztegi entziklopedikoa* (www.euskadi.net/euskara tokian dago kontsultagai)
- *Ikaslearen hiztegia*
- *Nire lehen hiztegia*

BOSTAK BAT / ADOREZ

Lanak:

- *BOSTAK BAT*
3000 hiru mila hiztegi multimedia: euskara-gaztelania, gaztelania-euskara. (CD-ROMa). www.euskadi.net/hizt_3000
- *Europa Hiztegia*
CD-ROMa. Interaziozko hiztegia.
- *Sinonimoen hiztegi antonimoduna* (www.euskadi.net/hizt_sinon tokian dago kontsultagai)

LUR ARGITALETXEA

- *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*
- *Eskolarako Hiztegi entziklopedikoa*
- *Lur Entziklopedia Tematikoa*
- *Lur Hiztegi Txikiak:*
 - Euskara - Euskara*
 - Euskara - Gaztelania / Gaztelania - Euskara*
 - Euskara - Ingelesa / Ingelesa - Euskara*
 - Euskara - Frantsesa / Frantsesa - Euskara*

3.3.3. Hizkuntzen teknologiak

3.3.3.1. Sarrera

Gaur egun bizi garen mundu eleanitz honetan, giza komunikazioaren izaera elektronikoago eta sekula baino globalago bihurtzen ari da. Prozesu horren garapenean internet laguntzen ari da; bateko, hainbat hizkuntzatako edukietan sarbidea ahalbidetzen duelako; besteko, itzulpenak egiteko tresnen beharra eta hizkuntza-teknologia eleanitzarekin zerikusia duten tratamenduak sortzen dituelako.

Hori horrela, hizkuntza bakoitzaren hizkuntza-gune berriaren sorrera (gizarte-gune elektronikoa, telematikoa, digitala, erretikularra) hizkuntza-komunitate bakoitzak bere hizkuntzarentzat garatu dezakeen hizkuntza-ingeniaritzaren (giza lengoaia bere forma guztietan ezagutu, ulertu, interpretatu eta sortu dezakeen informatika-sistemen garapenari hizkuntzaz dugun ezagutzaren aplikazioa da) araberakoa izango da. Sortzen ari den informazioaren gizarte honek, kultura-, hizkuntza- eta teknologia-eragozpenak ezabatu nahi ditu, geografia- eta politika-mailakoek gainezka egin baitute. Gainera, ez dira ahaztu behar, egungo hizkuntzaren industriek duten eragin ekonomikoa eta etorkizunean izango duten garapena.

Honako hauek dira hizkuntzaren ingeniaritzaren funtsezko teknologiak:

- *Informazioa ezagutu, bilatu eta aurkitzea.
- *Ahotsaren ezagutza (STT)
- *Testua ahots bihurtzea (TTS)
- *Ahotsaren eta musikaren ulermen digitala (SMC)
- *Karaktere optikoen ezagutza (OCR)
- *Itzulpen automatikoa

3.3.3.2. Euskara eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

Gai honen inguruan Eusko Jaurlaritzak jarraitzen duen politika bi plan hauetan oinarritzen da:

1) Zientzia-, Teknologia- eta Berrikuntza-Plana (2001-2004): Hizkuntzaren Industrien eta Hizkuntza Ingeniaritzaren programa.

Programa hau Eusko Jaurlaritzak landutako "Euskadi Informazioaren Gizartean" planaren zati da eta Juan José Ibarretxe Lehendakariak 1999ko irailean Eusko Lege Biltzarrean azaldutako "Euskadi 2000Hiru ekimen"ean dago aurreikusita.

Programaren helburu orokorrak hauexek dira:

- Hizkuntzaren Industriari loturik dauden Enpresa eta Ikerketa Zentroen gaitasun zientifikoa eta berrikuntza teknologikoa indartzea.
- Hizkuntzaren Industria enpresa- eta gizarte-sarearen multzoan sar dadin bultzatzea.
- Estatuko hizkuntza-aniztasunak sortzen dituen eskakizunen ondoriozko ezagupenak baliatzea.

Helburu orokor horietaz gain, Programak berariazko helburuak ezartzen ditu:

- Ikerketa-politikaren arloan: batetik, hizkuntza-baliabideen azpiegitura bat sortu eta eremu horrekin erlazionaturiko industria garatu eta indartzeko baldintza egokiak sustatzea; eta, bestetik, merkatuko estandarren alde erabat azaldu ziren teknologia ildoekin lotutako zerbitzuen eskaera eta erabilpena bultzatzea.
- Merkatu-mailan: mundu-mailan garrantzia izango duen erabiltzaileen komunitate trebatu eta aurreratua sortzea. Sektorean behar adinako ordezkartza izango duten aplikazioen garapena bultzatzea, jardueraredu espezifikoetara eutsi eta sektorean behar adinako onarpena izatea segurtatzeko.
- Kultura-mailakoak: "Informazio-gizartearen" aurrerapen globalen onura herritarrek, Kulturak eta Hizkuntzak jaso dezaten aukera eskaintzea; herritar bakoitzaren hizkuntzan kontsultarako elementuak sortzea, datu-baseetan eta informazio orokorreko sistemetan bilduta dauden informazioa eskuratzeko trabak desagerrarazteko bidea eginez; gizarte eleanitzarako sarbidea erraztea eta etorkizunean hizkuntza-, historia- eta kultura-corpusaren transferentzia egin ahal izateko aukera sortzea.

Lan-programari begira, hainbat "ekintza-ildo" eta "neurri osagarri" bereiztu da:

"Ekintza-ildoak":

- Hizkuntzaren Ingeniaritzako oinarritzko teknikak garatu.
- Hizkuntza baliabideen garapena.
- Lanabes aurreratuak erabili eta plataforma trebatzaileak esperimentatzea bultzatu.
- Informazioaren bilketa, berreskurapena eta bilaketa.
- Ahotsa automatikoki ezagutu, ahotsa modu digitalean ulertu eta testua ahots bihurtu.
- Ofimatikan testu tratamenduari euskarria emateko eta testuak bihurtzeko (itzulpena egiteko) funtzionaltasunak.

"Neurri osagarriak":

- Orain arteko ekimenak antolatu, ebaluatu eta hedatu.
- Proiektu pilotu erabat berritzaileak bultzatu.
- Hizkuntzen ingeniartzari lotutako teknologietako trebakuntza sustatzea.

Horrezaz gain, garapenerako oinarritzko estrategiak eta esku-hartze publikoko formula desberdinak proposatzen dira.

2) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN).

Euskararen Aholku Batzordeak egindako, Eusko Jaurlaritzak onartutako eta 1999ko abenduaren 10ean Eusko Legebiltzarrak sendetsitako Plan honek euskarak datozen hamar urteetarako dituen erronka nagusiak ezartzen ditu 3 mailatan bereizita:

Helburu nagusia: "euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea".

Hiru helburu estrategiko: euskara ondorengoetaratzea, euskararen erabilera eta hizkuntzaren kalitatea.

Helburu zehatzak eta egitasmo-proposamenak: VI.3.2.c puntuak Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei buruzkoa da eta bertan horrelako helburuak zehazten dira: euskararen ingeniartzaren industria bultzatzea; merkatuan zabalkunde handia duten produktuen lokalizazioari lehentasuna ematea; erabiltzaile aurreratuen komunitatearen sorrera bultzatzea; edizio- eta itzulpen-plataforma edo sareak sortzea, baita denen eskura egon daitezkeen hiztegi elektronikoak ere; etab.

3.3.3.3. Euskararen aurrerapenak Informazioaren eta Komunikazioaren teknologia berrien arloan.

1. Euskarazko prentsa idatzia on line (*Euskaldunon Egunkaria*, euskaraz idatzitako egunkaria, baita beste motatako aldizkariak ere).
2. Euskara ikasteko CDak eta euskaraz egindako CDak.
3. Web orriak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak horretarako dirulaguntzak ematen ditu; horrezaz gain, euskaraz egindako web orririk onena saritzen da) eta euskaraz argitaratutako bilatzaileak (www.kaixo.com, www.aurki.com, www.jalgi.com).
4. Sarean formatu elektronikoan kontsultagai jarritako corpusak, hiztegiak eta gainontzeko tresnak:

-XUXEN euskararen zuzentzaile ortografikoa, Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IXA taldeak egina; doan deskargatu daiteke: www.euskadi.net/euskara_hizt

-EUSKALTERMek, Euskararen Terminologi Banku Publikoak 500.000 termino ditu euskaraz eta gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko baliokideak: www.euskadi.net/euskalterm

-Elhuyar Hiztegia, gaztelania-euskara/euskara-gaztelania: www.euskadi.net/hizt_el

-3000 Hiztegia, gaztelania-euskara/euskara-gaztelania: www.euskadi.net/hizt_3000

- Sinonimoen eta antonimoen hiztegia: www.euskadi.net/hizt_sinon
- Morris Hiztegia ingelesa-euskara/euskara-ingelesa:
www.euskadi.net/morris
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa: www.euskadi.net/harluxet
- Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS), Euskaltzaindiak eskatuta UZEIk egindako corpusa: www.euskaltzaindia.net
- Hiztegi Batua: lan hau Euskaltzaindiak egin du eta lehenengo itzulian forma erabilienak jaso dira (20.000); bigarren izulian beste horrenbeste jasotzea espero da: www.euskaltzaindia.net
- Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL) Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IXA taldeak egin: www.ix.si.ehu.es
- Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*, lan honek Euskaltzaindiak euskararen hizkuntza-atlasa egiteko bildu dituen grabaketak jasotzen ditu: www.euskaltzaindia.net
- Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoen datu-basea: www.euskadi.net/euskara_eaetoponimia
- Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateak*, izendegi honek EAEko biztanle-entitateen izen ofizialak jasotzen ditu: www.euskaltzaindia.net
- Euskal Deituren Izendegia*, Euskaltzaindiak eginikoa, 10.000 deitura jasotzen ditu: www.euskaltzaindia.net
- Euskal Izendegia. Ponte Izendegia*. Euskal izenen izendegia. Euskaltzaindiak egindakoa: www.euskaltzaindia.net
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: www.euskadi.net/bopv

5. Gehien erabiltzen diren softwareko produktuen lokalizazioa.

- Egindakoak:
 - Windows 95 eta Windows 98
 - Word 6 eta Office 2000 (Word, Excel eta Outlook)
 - Internet Explorer 4 eta 5, eta Outlook Express 5
 - Linux Mandrake 8.2 (Software libreko sistema eragilea)
 - SAPen kudeaketarako lau modulu
 - Panda Platinum Antibirusa
 - Panda Titanium Antibirusa (www.pandasoftware.es/titanium/euskara)
 - Auto-ikaskuntzarako WIT Ikastaroak (Word 2000 eta Internet 2000)
- 2002ko abendurako:
 - Open Office: software libreko ofimatika-paketea
- Eskola Softwarea Euskalduntzeko Programa (EIMA) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitate Sailarena.

6. Hizkuntzaren urrutiko hezkuntzarako eta irakasleak trebatzeko leku birtuala sortzea.

- **HABENET** Egitasmoa, Helduen Alfabetatzeko eta Berreuskalduntzeko Erakundeak egindakoa; bere helburuak hauexek dira: HABEren sareko kanpoko eta barneko komunikazioak hobetzea (HABE, euskaltegiak, irakasleak, ikasleak); material didaktikorako sarbidea erraztea, baita bere homologazioa ere; auto-ikaskuntzarako sistemak eta didaktika on line garatzea; irakasleen etengabeko prestakuntza tutoreen bidez bideratzea eta administrazio-kudeaketa erraztea.
- **HIZPONET**, hizkuntza-plangintzaren kudeaketa optimizatzeko. Euskararen gizarte-azpiegitura publiko eta pribatuetan barneko eta kanpoko komunikazioak hobetzea du helburu.
- **HIZNET**, hizkuntza-plangintzari buruzko ikastaroa da eta Eusko Ikaskuntzak, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHUK), Udako Euskal Unibertsitateak (UEUK), eta Soziolinguistika Institutuak (SEIk) antolatu dute. Ikastaroa Interneten bidez ematen da eta hizkuntza-normalakuntzarako teknikariei, profesionalei, ikerlariei eta hizkuntza-normalizazioaren arloan ardura dutenei zuzendua da.

7. Informazioaren biltzea, berreskuratzea eta bilatzea:

- Kapsula Softwarea: Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak INTEK plangintzaren barruan finantzatutako proiektu honen barruan, dokumentazio-jasotzearen orduan hainbat iturri eta formatu desberdin modu automatikoan tratatu ahal izateko aitzineratze teknologikoak burutzea da xedea. Ametzagaiña (agente teknologikoa) eta ASP (liderra) enpresein batera, Klaudio Harluxet Fundazioa, Euskaldunon Egunkaria, HABE eta Argia daude proiektu honetan.. www.kapsula.com

8. Ahotsaren ezagutza automatikoa, ahotsaren tratamendu informatikoa edo ahotsaren sintesia eta transkripzio fonetiko automatizatua.

- Telefónicak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateak, euskal erakundeen diru-laguntzaz, hizkuntza gaitasunen garapenerako hainbat proiektu garatu dute euskaraz ahotsa interpretatu eta soinu bidezko mezuen sintesia egiteko.

9. Hizkuntzaren Ingeniaritzaren oinarritzko teknikak garatzea, hala nola, hizkuntza prozesatzeko tresnak. Lan hauek Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IXA taldeak egin ditu. www.ix.si.ehu.es

- MORFEUS Analizatzaile morfologikoa
- EUSLEM euskararen lematizatzailea/etiketatzailea.
- Itzulpenean laguntzeko tresnen zenbait prototipo.

10. Testua testu bihurtzea (itzulpena) eta testuaren tratamendua testuinguru ofimatikoan: funtzionaltasunak

- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): Trados teknologiaren bidez lege- eta administrazio-itzulpenen memorien corpora sortzen ari da.
- ACOTE Egitasmoa: Kapsula egitasmorako garatutako teknologia oinarritzat hartuz, Ametzagaina, ASP eta Rosetta Testu Zerbitzuak enpresak itzulpenean laguntzeko produktua garatzen ari dira. Produktu horrek hizkuntza-teknikak barneratzen ditu, hala nola, hizkuntza-analisirako teknikak (lematizazioa); testu elebidunak lerrokatzeko, komunztadurak bistaratzeko eta itzulpenean erroreak antzemateko tresnak. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du.

HIZKUNTZEN TEKNOLOGIAK (eskema)

Lokalizazioak		Euskara lantzeko tresnak ON-LINE	Bestelako proiektuak
Egindakoak	2002ko bukaerarako		
*Windows 95 eta Windows 98 *Word 6 eta Office 2000 (Word, Excel eta Outlook) *Internet Explorer 4 eta 5, eta Outlook Express 5 *Linux Mandrake 8.2 (Software libreko sistema eragilea) *SAPen kudeaketarako lau modulu *Panda Platinum Antibirusa *Panda Titanium Antibirusa *Auto-ikaskuntzarako WIT Ikastaroak (Word 2000 eta Internet 2000)	*Open Office: software libreko ofimatika-paketea	*XUXEN euskararen zuzentzaile ortografikoa: www.euskadi.net/euskara_hizt *EUSKALTERM: www.euskadi.net/euskalterm *Elhuyar Hiztegia: www.euskadi.net/hizt_el *3000 Hiztegia: www.euskadi.net/hizt_3000 *Sinonimoen eta antonimoen hiztegia: www.euskadi.net/hizt_sinon *Morris Hiztegia: www.euskadi.net/morris *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa: www.euskadi.net/harluxet *Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS),: www.euskaltzaindia.net *Hiztegi Batua: www.euskaltzaindia.net *Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL): www.ixi.si.ehu.es *Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia: www.euskaltzaindia.net *Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoen datu-basea: www.euskadi.net/euskara_eaetoponimia *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateak: www.euskaltzaindia.net *Euskal Deituren Izendegia: www.euskaltzaindia.net *Euskal Izendegia. Ponte Izendegia: www.euskaltzaindia.net *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: www.euskadi.net/bopy	*Leku birtualak sortzea: -HABENET -HIZPONET -HIZNET *KAPSULA 2000 *Hizkuntzaren Ingeniaritzaren oinarritzko teknikak garatzea: -MORFEUS -EUSLEM *Telefónicak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateak, euskal erakundeen diru-laguntzaz, hizkuntza gaitasunen garapenerako hainbat proiektu garatu dute euskaraz ahotsa interpretatu eta soinu bidezko mezuen sintesia egiteko. *Itzulpengintzari laguntzeko: -IZO: itzulpen-memorien corpora -ACOTE egitasmoa

Euskararen corpora

4. Corpus alorrean diharduten erakundeei edo taldeei buruzko informazio orokorra

Corpus alorrean diharduten erakundeei edo taldeei buruzko informazio orokorra

Izenak	Arloak	Helbidea	Telefona/ Faxe/ Posta elektronikoa
Euskaltzaindia	-Fonetika -Lexikografia -Dialektologia -Gramatika -Onomastika -Hizkuntza-erregistroak	Plaza Barria, 15 48005 BILBAO	Telf.: 94-4158155 Faxe: 94-4158144
UZEI	-Lexikografia -Terminologia	Aldapeta, 20 20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	Telf.: 943-473377 Faxe: 943-457944 E-mail: uzei@sarenet.es
ELHUYAR Kultur Elkartea	-Hiztegigintza / Erreferentzi lanak	Asteasuain poligonoa, 14. Pabilioia Txikierdi auzoa 20170 USURBIL	Telf.: 943-363040 Faxe: 943-363144 E-mail: elhuya01@sarenet.es
Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO) IVAP-HAEE (Eusko Jaurlaritza)	-Administrazio publikoentzako itzulpenak, interprete-lanak eta terminologi lanak	Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 VITORIA-GASTEIZ	Telf.: 945-017600/02 Faxe: 945-017603
DEIKER Institutua (Deustuko Unibertsitatea)	-Dialektologia -Toponimia	Unibertsitateetako hiribidea, 24 48007 BILBAO	Telf.: 94-4139000 Faxe: 94-4139110 E-mail: alberto@inf.deusto.es
Euskara Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea)	-Terminologia	Sarriena, z/g 48940 LEIOA	Telf.: 94-6012000 Faxe: 94-4649550
Bostak Bat	-Hiztegigintza/Erreferentzi lanak		
LUR Argitaletxea	-Hiztegigintza/Erreferentzi lanak	Usandizaga, 17 20002 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN Sabino Arana, 47 48013 BILBAO	Telf.: 943-291713 Telf.: 94-4418910 Faxe: 943-285760

Euskararen corpora

5. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

5. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

Euskararen Aholku Batzordeak 1998ko ekainaren 24ko Batzorde Osoaren bileran aho batez onetsitakoa.

Eusko Jaurlaritzaren 1998ko uztailaren 28ko Gobernu Batzordeak onartutakoa.

Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean sendetsitakoa.

Zer da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)?

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarritzko tresna.

Plan estrategiko hau ez da dokumentu itxi eta aldaezina, irekia eta etengabe egokitzeko sortua baizik.

Planaren lehenengo zatian jadanik eginda zegoen lana balioztatu egin da, hasitako jardueretan indar-guneak eta ahuleziak zein diren atzemateko helburuz. Bigarrenengan, lehenengo zatian hizkuntzaren erabilera balioztatzeko erabili diren arlo berberei jarraiki analisisa xehatuz, datorren hamar urtean egin beharreko jardueretako proposamen zehatzak egin dira.

Zertarako balio du?

Plan honek Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren ildo nagusiak erabakitzeko, foru-aldundiek eta udalek bideratu ohi duten euskararen aldeko sustapen-politika gidatzeko eta euskalgintzan diharduten elkarte, talde eta erakundeekiko elkarlana bideratzeko oinarritzko erreferentzia eta tresna izan nahi du.

Planak datozen hamar urteetarako erronka nagusiak hiru mailatan bereizita ematen ditu, hala nola, helburu nagusia; helburu estrategikoak; helburu zehatzak eta proposamen-egitasmoak.

Helburu nagusia

EBPNren helburu nagusia Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea da. Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakiz eta bultzatuz, horrela bakarrik bermatuko baita euskararen biziraupena eta normalizazioa.

Helburu estrategikoak

Hiru helburu estrategiko hartzen ditu bere baitan:

-Lehenengoa, euskara, belaunez belaun eta etenik gabe ondorengoetaratzea, familia, eskola eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez.


-Bigarrena, produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzeko beharra, gizarte-erabilera ahalbideratze aldera. Datozen hamar urteotako erronkarik nagusia belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza. Horretarako euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman behar da beste erabilera-eremuetara zabaldu arte, esaterako administrazioa, gune euskaldunenetara, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietara, lan-arloa, aisialdira, kirolera eta erlijiora.

-Hirugarrena, hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko, etengabe elikatu egin behar dela, kultura-ekoizpenaren bidez, komunikabideen bidez (prentsa idatzia, irratia, telebista, argitalpenak, publizitatea) eta euskararen corpusaren plangintzaren bidez.

Helburu zehatzak eta egitasmo-proposamenak

Euskara biziberritzeko eraginkortasunaren eta bideragarritasunaren irizpideen arabera, proposamen- aukeraketa egin da. Ondoren, aukeratutako proposamenen artean, lehentasunak finkatu dira.

Hona hemen, corpus-plangintzari dagokionez, EBPNk agintzen duena:



VI.3.3.a. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

- Irakasleak etengabe prestatu euskara batuaren eta euskalkiaren artean zubiak egiteko, eta euskalkietan bizi-bizirik dauden egiturak eta erregistro diferenteen ereduak irakatsi ikasleei, tokian tokiko hizkerara egokituz.
- Etxeko hizkuntza aintzat hartu, naturaltasuna lortzeko.
- *Hiztegi Batua* amaitu eta argitaratu. Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako.
- Hizkuntza-paisaia ugaltu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.
- Euskara hobetzeko ikastaroak antolatu, euskaltegietako irakasleentzat, komunikabideetako esatari eta kazetariarentzat.
- Informatizatuta dauden euskararen corpusak modu erosoan erabiltzeko aukera eskaini.
- Kezka eta zalantzak argitzeko bitartekoak jarri: telefono linguistikoa, aholku-taldeak, galdekizunak, berripaperak eta abar.

EUSKARAREN CORPUSA

6. Ondorioak

6. Ondorioak

- Lan honen helburua euskararen corpus-plangintzaren ikuspegi zabal bat ematea izan da. Hala eta guztiz ere, ezin dugu estatus-plangintza aipatu gabe utzi biak elkarri lotuta daudelako eta biak hizkuntza-plangintza osatzen duten bi alderdiak direlako.
- Corpus-plangintzari dagokionez, 1968an Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarra egin zenetik, hots, euskararen corpusaren normalizazioan lehen urratsak eman zirenetik, asko aurreratu egin da euskararen corpus-alorrean. Horren adibide, bada, sakontze-egitasmo honetan zehar aipaturiko lan guztiak.
- Gaur egun gizartea informazioan eta jakintzan oinarriturik dago. Teknologia berriek informazioa prozesatzeko eta transmititzeko tresnak sortu dituzte. Tresna horiek hizkuntza nagusientzat lantzen dira gehienbat; hedadura txikiko hizkuntzek merkatu txikia dutenez, tresna hauek gabe atzeraturik gelditzeko arriskua dute, hau da, gehiago ahultzeko arriskua. Euskararen kasuan, aipatzekoak dira informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien arloan emandako aurrerapausoak. Horretan ari dira, hain zuzen ere, hizkuntza-politikan dihardutenak. Hori horrela, argi dago teknologia berriek eskainitako aukera guztiak aprobeztatu behar direla hizkuntzaren alde, hau da, gizarteak dituen beharrei erantzuteko behar diren tresnak sortu behar dira. Gaur egun, esate baterako, corpusak oso baliotsuak dira Hizkuntzen teknologiek edukiak behar baitituzte, beraz, euskararen biziraupenerako estrategikoa izango da teknologia horietan integratzea. Izan ere, zenbat eta gehiago erabili hizkuntza gero eta behar gehiago sortzen da eta horrek ziurtatuko du euskararen erabilera. Hor dago, bada, euskararen ETORKIZUNA.

BIBLIOGRAFIA

Liburuen, agirien kontsultak:

AIZPURUA, Xabier eta DIAZ DE LEZANA, Araceli: *"El euskera y las nuevas tecnologías de la información y de la comunicación: el programa de industrias de la lengua"* 2001eko azaroaren 16an Andorra la Vella emandako hitzaldia.

DIAZ DE LEZANA, Araceli: *"Administrazioko terminologia eta inguruko arloekiko harremanak"* Administrazioko hizkera eta terminologiaz Jardunaldiak. HAEE/IVAP, 1989.

EUSKALTZAINDIA:

- Euskal Gramatika: lehen urratsak -I
- 1998., 1999. eta 2000. urteko Oroitidazkiak

EUSKO JAURLARITZA:

- Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta. Euskararen Jarraipena, 1996.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, 1999.
- "INFORMAZIOAREN GIZARTEA" Area Sektorialerako "Hizkuntzaren Industria" delako Ekimen Proposamena.

HAUGEN, Einar: *"The implementation of corpus planning"*

INTXAUSTI, Joseba: Euskara, euskaldunon hizkuntza. Eusko Jaurkitza, 1990.

MITXELENA, Koldo:

- La lengua vasca. Amigos del País, 1950.
- Lengua e historia. Paraninfo, 1987.
- Palabras y textos. EHU, 1987.
- Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco. Revista de Occidente, 10.-11. zk., 1982.

ROTAETXE, Karmele: Sociolingüística. Editorial Síntesis, 1988.

VILLASANTE, A. Luis: Euskararen auziaz. "Luis Elizalde" saila, euskara idatziaren batasunaz 9. liburukia, 1988.

ZUAZO, Koldo: Euskararen batasuna. Euskaltzaindia. IKER-5, 1988.

Internet bidezko kontsultak

<http://www.ctv.es/USERS/lursa>

<http://www.ehu.es/euskara-institutua>

<http://www.elhuyar.com/hiteg.html>

<http://www.euskadi.net/euskara>

<http://www.euskaltzaindia.net>

<http://www.ivap.org/eusk/izo/karatula>

<http://ixa.si.ehu.es>

<http://www.jalgi.com/harluxet>

<http://www.kapsula.com>

<http://www.uzei.com>